

Liburuak

KRITIKA

Mintzo den luma

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

NEGUKO HOTZAREKIN batera, kaleak behe lainoz estalirik zeuden arratsalde batean, eta ilunabarrak dakarren isiltasunaz lagunduta irakurri nuen Anxel Foleren (1903-1986) liburua. Zenbait istorio giro aproposa eskatzen dutelakoan nago, bai irakurriak eta bai kontatuak izateko. Hori da, hain zuzen ere, idazle galiziarraren *Kriseiluaren argipean* (*Á lus do candil*) ipuin bilduma osatzen duten hamabost narrazio laburren abiapuntua.

Lugoko hegoaldean, idazlearen bizitokia izandako Caurel lurralde basatia kokatzen da. XIV. mendeko dorretxe batean bizi diren ugazaba eta zerbitzariak sutondoan hasi dira kontu kontari, elurtea noiz igaroko den zain. Narratzaile anonimoen bitartez, Folek Caureleko herri tradizioak gorde dituen istorioak ezagutzera ematen dizkigu eta, aldi berean, berak asmatutako beste batzuk gehitzen ditu. Liburu honen berezitasun nabarmentariko bat, idazleak ahozko tradizioaren ohiko

freskotasuna zein bat-batekotasuna maila idatzian ere zaintzeko erakutsi duen gaitasunean datza. Irakurlea entzule bilakatzeaz gainera, tokian tokiko eta kriseiluaren argipean kontaktzen ari den istorioaren lekuko eta partaide bilakatzen da, narratzaileak etengabe baliatzen dituen hurbiltasun zein konplizitatezko formulen bitartez.

Kanpoko elur malutek leihoko kristalean talka egitean ateratzen duten zarata, mendietan barrena dabiltzan otsoen uluak, etxe barruko argi ahula edota haizearen presentzia ezku misterioitsuaren arteko konbinazioak, irudimenaren mundurako atea zabaltzeko prestatzen gaitu; sorginak, mamuak, hildakoak eta, oro har, sinbologia sakonko objektuak (kartak, hildakoen erretratuak, idazkiak, ispiluak...) eguneroko bizitzako gertaeretan txertaturik agertzen zaizkigun elementuak izanda ere, errealitateari ukitu magiko bat eman nahian bezala ageri dira. Ipuin batzuek amaierako moraleja modukoa dakarte (*Anton de Sidran* edo *Hildakoek gaztelaniaz hitz egiten zuten*) eta beste batzuek aldiz, ametsa espresabide dutenak bereziki, giza inkonziientearen indarrak mintzo dira, interpretazio desberdinetarako aukera eskainiz (*Arxemirola*, *Aleluia!* edo *Ispilua*).

Isiltasuna da nagusi. Soinu bakan bat baino ez da entzuten. Anxel Foleren luma da, kriseiluaren argipean, hizketan hasi zaiguna.



Kriseiluaren argipean.
Anxel Fole.
Itzul.: Josemari Navascués.
Alberdania-Elkar.
140 orrialde.
10,80 euro.



ZIO

ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA